

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila****Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 362/2023 FORU AGINDUA, irailaren-18koa. Honen bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako 303 Eredua onesten da, bai eta horren aurkezpen elektronikoa ere.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako 303 erdua zergaren subjektu pasiboek erabili behar dute, autolikidaziorako aldi behingo obligazioak dituztenek —likidaziorako epea hiruhileko naturalarekin zein hil naturalarekin bat etorri—, araubide erraztu berezia aplikatzen duten edo erakunde-taldearen araubide berezia aplikatzea aukeratu duten pertsona fisikoen edo entitateen kasuan izan ezik. Azken kasu horretan, aipatutako araubide berezien kasuetarako onetsitako autolikidaziorako eredu bereziak aurkeztu beharko dituzte.

Gaur egungo 303 erdua Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 17ko 145/2017 Foru Aginduaren bidez araututa dago. Agindu horren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako 303 erdua eta haren aurkezpen telematikoa onartzen dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere egoitza elektronikoa abian jarri ondoren, herritarrei sailtako bulego birtualetatik Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora ematen zaizkien zerbitzu telematikoak pixkanaka migratzeko prozesuari ekin zion.

COVID-19ak ekarritako osasun-larrialdiko egoerak eragin handia izan zuen Bizkaiko zerga-administrazio elektronikoa izateko prozesuan, eta horrek, arlo horretan ere, atzerapen handiak eragin zituen migrazio osoa gauzatzeko beharrezkoak ziren egokitzapen-prozesuak amaitzeko garaian; hasiera batean, 2021eko abuztuaren 1era atzeratu zen migrazioa, eta, horren ondoren, 2023ko abuztuaren 1era.

Testuinguru horretan, azaroaren 24ko 100/2020 Foru Dekretua onartu zen. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko erregelamendua aldatzen da, administrazio elektronikoaren arloan, zerga-kudeaketari lotutako indarreko arau-esparrua zerga-administrazio elektroniko bat ezartzeak dakartzan errealitate berrietara egokitzeko.

Hala, besteak beste, aipatutako azaroaren 24ko 100/2020 Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrik ezarri zuen, alde aurretik ezarrita ez dagoenean, nahitaez bete behar direla bide telematikoz 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren edo data horretatik aurrera sortzen diren zergaldiei dagozkien zerga-betebehar guztiak, baita betebehar formalak ere. Kasu horietan, Ogasun eta Finantza Sailarekin harremanak bide telematikoz izateko betebeharra jasotzen da.

Horrela, Bizkaiko Foru Aldundia batez ere elektronikoa izan dadin lortzeko eta pixkanaka eredu horretara igartzeko helburu bikoitza lortzeko (non zerga-administrazioaren eta zergadunen arteko harreman-bide nagusia batez ere egoitza elektronikoa izango den), 2022ko uztailaren 5etik aurrera, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren ekainaren 22ko 656/2022 Foru Aginduaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri jarritako web formularioaren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako 303 erdua aurkeztea gaitzen da, une hartan eskuragarri aurkezteko zeuden baliabideak mantentzearen kalterik gabe.

Era berean, Batuz sistemaren barruan, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua (2022 eta 2023rako Batuz sistemara borondatez atxikitze baldintzak eta aplika daitekeen konpentsazioa zehazten dituenak, eta hainbat zerga-erregelamendutan zenbait aldaketa sartzen dituenak) ezartzen du foru-agindu bidez zehaztuko direla sistema horri lotutako betebeharrak borondatez betetzera atxiki



diren zergadunek autolikidazio edo aitortpenen zirriborroak eskuragarri jartzeko eskatu ahal izango dituzten zerga-ereduak.

Testuinguru horretan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 303 ereduaren autolikidazio-zirriborroak eskatzeko aukerari heltzen zaio orain.

Aipatutako autolikidazio-zirriborroak zergadunei beren zerga-betebeharrak betetzeko laguntzeko bitarteko bat dira, eta foru agindu honetan arautzen den eredia aurkezteko epea amaitu aurreko lehen egunetik bigarren egun baliodunera arte eskatu ahal izango dira.

Era berean, adierazi behar da zirriborroa eskuragarri jartzeko beharrezkoa dela zergadunek alde aurretik eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta horren edukia bat etorriko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eraman diren eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetan ageri den likidazio-aldiari buruzko informazioarekin (liburuok Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 114. artikuluan aipatzen dira).

Zirriborroa egin ondoren, zergadunak zergaren autolikidazio zuzenerako beharrezkoak diren datuak eta dokumentazioa egiaztatu, aldatu eta/edo emango ditu, dagokionaren arabera, eta kontuan hartu behar da zirriborroa jasotzeak ez duela inola ere zergaduna salbuetsiko Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkezteko betebeharretik, zerga hori arautzen duen araudiaren arabera horretara behartuta dagoenean.

Azkenik, adierazi behar da zergadunak autolikidazioaren zirriborroa erabili ahal izango duela hura aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ezarritako prozedurari jarraituz.

Hori dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako ahalmena erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

303 EREDUA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN AUTOLIKIDAZIOA

1. artikulua. — 303 eredia onestea

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako 303 eredia onesten da. Eredua foru agindu honen eranskin gisa erantsi da.

Bi. Eredu hau Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasibo hauek aurkeztu behar dute:

- a) Baldin eta beren likidazio-epea hiru hileko naturalarekin bat badator, araubide erraztu berezia aplikatzen duten pertsona edo entitateen kasuan izan ezik edo aldi behingoak ez diren autolikidazioak aurkezteko obligazioa duten pertsona edo entitateen kasuan izan ezik.
- b) Baldin eta beren likidazio-epea hil naturalarekin bat badator eta entitate-taldearen araubide berezia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikatzea aukeratu ez badute.

2. artikulua. — 303 eredia telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak

Bat. 303 ereduari dagozkion autolikidazioak telematikoki aurkeztea nahitaezkoa izango da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da.

Bi. Autolikidazio hauek telematikoki aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Sarbidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, eta segurtasun berme osoa izango du informaziorako sarbidean eta haren jarduketan izapidetzean.



2. Aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkariak, egoitza elektronikoan horretarako ezarritako sistemak erabiliz identifikatu beharko du bere burua, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuak onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Halaber, honako izapide hau ere hautatu beharko du: «Balio erantsiaren gainera zergaren aitortzea (BEZaren banakako aitortzea). 303 eredu, Balio Erantsiaren gainera Zergaren autolikidazioa». Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan adierazitako izapidetze-jarraitibideak bete beharko ditu.
3. 303 ereduari dagokion autolikidazioa telematikoki aurkezteko, aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkariak transmititu beharreko autolikidazioa duen fitxategia sortu beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak garatutako programak soilik erabiliz. Programek aldi bakoitzean autolikidazio bakarra duen fitxategia sortuko dute.
Halaber, aurkezpen telematikoa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen web formularioaren bidez egin ahal izango da.
Azken kasu horretan, zergadunak zergaren autolikidazioa aurkeztu ahal izango du, Ogasun eta Finantza Sailak eskuragarri jarritako zirriborroan jasotako datuetatik abiatuta, foru agindu honen II. kapituluaren ezarritako baldintzekin bat.
4. Bidalitako autolikidazioari dagokion aitortzaileak egoitza elektronikora sartu den erabiltzailea izan behar du. Autolikidazioa aurkezle baimenduak aurkezten bada, ordezkatzeko dituenetako bat izan behar du, foru-agindu honen 5. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Hiru. Akats formalak dituzten autolikidazioak aurkeztea.

Telematikoki autolikidazioak betetzean akats formalik egonez gero, inguruabar horren berri emango zaio aitortzaileari, sistema bera erabiliz: akats-mezuak bidaliko zaizkio, akatsok konpon ditzan.

3. artikulua. — 303 eredu aurkezteko epea

Bat. Subjektu pasiboen kasuan, baldin eta beren likidazio-epea hil naturalarekin bat badator, 303 eredu aurkezteko eta, hala badagokio, ondoriozko zenbatekoa sartzeko epea hileko likidaziorako epea amaitu eta hurrengo hileko lehen hogeita bost egun natural izango da, uztailaren likidazio-epeari dagokiona izan ezik; izan ere, abuztuan eta iraileko lehen hogeita bost egun naturaletan aurkeztuko da.

Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta dauden subjektu pasiboen abenduko autolikidazioa azken autolikidaziotzat hartuko da; hurrengo urtarrilaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko da. Subjektu pasibo hauen 390 eredu, BEZaren azken autolikidazioari buruzkoa, laburpen informatiboa izango da.

Subjektu pasiboek, baldin eta horien likidazio-epea hil naturalarekin bat badator eta hileko itzulketen erregistroan inskribatuta ez badaude, ezingo dute abenduko hileko 303 eredu aurkeztu: likidazioaren emaitza azken autolikidazioaren 390 eredu sartu beharko dute.

Bi. Subjektu pasiboek, baldin eta beren likidazio-epea hiruhileko naturalarekin bat badator, 303 eredu aurkezteko eta, hala badagokio, ondoriozko zenbatekoa sartzeko, hiruhilekoko likidazioa amaitu eta hurrengo hilaren lehen hogeita bost egun naturalak izango dituzte.

Laugarren hiruhilekoari dagokion autolikidazioa dela-eta, subjektu pasibo hauek ez dute 303 eredu aurkeztuko, eta emaitza azken autolikidaziorako 390 eredu sartu beharko dute.

Hiru. Aurreko zenbakietan ezarritakoa alde batera utzita, subjektu pasibo bat konkurtsoan dagoela aitortzen denean bi autolikidazio aurkeztu beharko ditu honako berezitasun hauekin:

- a) Hileko 303 autolikidazioa aurkezten bada, denboraldiaren hasiera eta konkurtsoa adierazi baino lehenagoko egunaren arteko denbora tartean, hileko autoliki-



dazioa aurkeztuko da eta, konkurtsoa adierazten den unetik likidazioaren denboraldia amaitu arte, hileko bigarren autolikidazioa aurkeztuko da.

322 ereduak aurkezten duten erakundeek kasuan, aurkezpena dagokion foru aginduaren arabera egingo da.

- b) Hiruhilekoko 303 autolikidazioa aurkezten bada, denboraldiaren hasiera eta konkurtsoa adierazi baino lehenagoko egunaren arteko denbora tartean, hiruhilekoko autolikidazioa aurkeztuko da eta, konkurtsoa adierazten den unetik likidazioaren denboraldia amaitu arte, hileko autolikidazioa aurkeztuko da.

Aurkezpenak hilerokoa izaten jarraitu beharko du iraungitzeko autoaren datara arte edo hitzarmena onesteko autoa ematen den urte naturala amaitu arte.

4. artikulua. — Ordainbideak

Bat. 303 ereduaren banku-helbideratzearen aldeko aukera egiten denean —itzultzeko autolikidazioen kasuan nahitaezkoa izango da— atzeraezina izango da eta honako baldintzok bete beharko ditu:

1. Bizkaiko Foru Ogasunak jakin behar du nor den IBAN kodearen titularra.
2. IBAN kodearen titularra aurkeztutako autolikidazioaren aitortzailea izan behar da.

Autolikidazioaren emaitza dirua ordaindu beharra bada, hautatutako finantza-erakundea Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-bilketako laguntzailea izan behar da.

5. artikulua. — Lankidetzak-hitzarmenak edo -akordioak

Bat. Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onetsi zuen 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuko 48. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ogasun eta Finantza Sailak lankidetzak-hitzarmen edo -akordioen bidez baime-na emango die erakunde edo elkarte aintzatetsi batzuei euren bazkide edo kide diren profesionalen autolikidaziorako 303 ereduak bide telematikoen bitartez aurkezteko, beste batzuen izenean.

Bi. Aurreko zenbakian aipatutako profesionalen kasuan-kasuan behar den ordezkari izan behar dute 303 ereduaren autolikidazioak telematikoki aurkezteko. Profesional horiek Ogasun eta Finantza Sailak eskatzen dien guztietan frogatu behar dute euren ordezkari izan behar dute lankidetzak-hitzarmen edo -akordioan ezarri bezala.

II. KAPITULUA

303 EREDUKO AUTOLIKIDAZIOAREN ZIRRIBORROAK

6. artikulua. — Autolikidazio-zirriborroak

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitakoak garatzeko (horren bidez, 2022rako eta 2023rako Batuz sistemara borondatez atxikitzeko baldintzak zehazten dira, bai eta aplikatu beharreko konpentsazioa ere, eta zenbait aldaketa sartzen dira hainbat tributu-erregelamendutan), Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 303 ereduari dagokion autolikidazioa aurkeztu aurretik, Ogasun eta Finantza Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta zergadunek eskatu ondoren, eskuragarri jarriko ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioaren zirriborroak.

2. Zirriborro horiek egiteko, Ogasun eta Finantza Sailak eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuetan ageri den likidazio-aldiari dagokion informazioa izango du abiapunturik. Liburuok Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 ter artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 114. artikuluan aipatzen dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eraman diren eragiketak jasotzen dituzte.

3. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin behar da, foru agindu honen 3. artikuluan aurreikusitako ereduak aurkezteko epea amaitu aurreko lehen egunetik bigarren egun baliodunera arte.



Horretarako, aitortzailea edo, hala badagokio, pertsona edo erakunde ordezkaria identifikatzeko, egoitza elektronikoan horretarako ezarritako sistemak erabili beharko dira, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zergak kudeatzeko onartutako Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, eta dagokion aukera erabili beharko da zirriborroa eskatzeko, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan adierazitako izapidetze-jarraibideak segitu ere.

4. Ogasun eta Finantza Sailak zirriborroak eskura jarri ondoren, zergadunak zerga behar bezala autolikidatzeko beharrezkoak diren datuak eta agiriak egiaztatu, aldatu eta/edo emango ditu, dagokionaren arabera.

5. Ogasun eta Finantza Sailak autolikidazio-zirriborro bat aurkeztu arren, zergadunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, baldin eta zerga hori arautzen duen araudian horretarako betebeharra duela adierazten bada.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — Arauak indargabetzea

Foru agindu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratzen da Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 17ko 145/2017 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako 303 eredia eta haren aurkezpen telematikoa onartzen dituen, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren ekainaren 22ko 656/2022 Foru Agindua, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidaziorako 303 eredia web inprimaki bidez aurkeztea ezartzen duena.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen Iragankor Bakarra. — Zirriborroak eskatzeko epea

Foru-agindu honen 6. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitakoa gorabehera, zirriborroak foru-agindu honen 6. artikuluan aurreikusitako aurkezpen-epea amaitu aurreko lehen egunetik laugarren egunera arte eskatu ahal izango dira, honako kasu hauetan:

1. Adierazitakoa aplikatuko zaie 2023ko hirugarren hiruilekoari dagozkion autolikidazio-aldiei eta 2024ko eta 2025eko lehen, bigarren eta hirugarren hiruilekoari dagozkien likidazio-aldiei, subjektu pasiboen likidazio-aldia hiruileko naturalarekin bat datorren kasuetan.
2. Adierazitakoa aplikatuko zaie 2023ko irailari, urriari, azaroari eta abenduari dagozkien likidazio-aldiei eta 2024ko eta 2025eko urtarriletik abendura arteko likidazio-aldiei, subjektu pasiboak Hileko Itzulketen Erregistroan inskribatuta dauden kasuetan.
3. Adierazitakoa aplikatuko zaie 2023ko irailari, urriari eta azaroari dagozkien likidazio-aldiei eta 2024ko eta 2025eko urtarriletik azarora arteko likidazio-aldiei, subjektu pasiboen likidazio-aldia hilabete naturalarekin bat datorren kasuetan, baldin eta subjektu horiek Hileko Itzulketen Erregistroan inskribatuta ez badaude.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru-agindu hau.

Bilbon, 2023ko irailaren 18an.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA



Balio Erantsiaren Gaineko Zerga	303
Autolikidazioa	1. or.
Likidazio zk.	

Ekitaldia	Epea	Konkurtsua dagoenean epealdia zatikatzea	185	Autolikidazio osagarria	01		
		(e)tik	(e)ra				
Kutxa-irizpidearen araubide berezia duen subjektu pasiboa			186	Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketen hartzailea			
Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera			188	Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera ezeztatzea			
Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera			188	Hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera ezeztatzea			
Subjektu pasiboa	IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena					
	E-maila				Telefonoa		
	Jarduera nagusia				EJZ epigrafea / kodea		
	Jarri X hileko itzulketa Erregistroan inskribatuta bazaude	02					
Aurkezlea							
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena						
Likidazioa	Sortutako BEZ	Araubidea		Zerga oinarria		Tasa	Kuota
		Araubide orokorra	48		%0	49	
			03		%4	04	
			110		%5	111	
			05		%10	06	
			07		%21	08	
		Baliokidetasun-errekargua	09		%0,5	10	
			11		%1,4	12	
			13		%5,2	14	
			15		%1,75	16	
		Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-eskuraketak	17			18	
		Subjektu pasiboa inbertitzearen ondorioz sortutako BEZa	19			20	
		Oinarrien eta kuoten aldaketa, orokorra	21			22	
	Oin. eta kuo. ald., BEZFaren 80.art. 3. eta 4.zenb.	46			47		
	Sortutako kuota, guztira ([49] + [04] + [11] + [06] + [08] + [10] + [12] + [14] + [16] + [18] + [20] + [22] + [47])				23		
	Barruko eragiketetan BEZ kengarrria				24		
	Inportazioetako BEZ kengarrria				25		
	Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-eskuraketetako BEZ kengarrria				26		
	Konpentsazioak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian				27		
	Inbertsioen erregularizazioa				28		
	Lainaren behin betiko ehuneko aplikatzearen ondoriozko erregularizazioa (bakarrik 12.hilabeteen)				29		
	Kontzentrazioa, guztira ([24] + [25] + [26] + [27] + [28] + [29])				30		
	Diferentzia ([23] - [30])				31		
	Kuoten erregularizazioa (BEZari buruzko Foru Arauaren 80.art.Bost.5.a)				45		
	Bizkaiko zerga-ordainketaren portzentajea		32 %				
	Bizkaiaari dagokion kuota ([31] + [45]) x [32]				33		
	Aurreko ekitaldiei dagozkien konpentsatzeko kuota				34		
	Emaitzia	Bizkaiko Foru Aldundian, gainerako Foru Administrazioetan edo/ta Estatuko Administrazioan batera zergak ordaindutako subjektu pasiboei bakarrik zuzenduta.		Emaitzia ([33] - [34] + [35])		36	
		Urteko erregularizazioaren emaitza		35			
		Jarduerarik gabe	Kompentsatzekoa	Itzultzekoa	Sartzekoa		
		37	38	39	40		
		Bete autolikidazio osagarria bada bakarrik: lehen sartutakoa				41	
	Bete autolikidazio osagarria bada bakarrik: lehen itzultakoa				42		
	Zerga zorra guztira				43		
Helbideraketa							
IBAN kodea							
Bidalketaren data eta zenbakia							
Foru Ogasunaren zigilu elektronikoa							



IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena	Ekitaldia	Epea	2. or.
-----	--	-----------	------	--------

Kutxa-irizpidearen araubide berezia duten subjektu pasiboentzako eta araubide horren eraginpeko eragiketen hartzaileentzako baino ez

Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu ondoren, BEZari buruzko Foru Arauren 75. artikuluan jasotako zerga sortzeko arau orokorraren arabera sortutako ondasun-emateen eta zerbitzuen prestazioen zenbatekoak	Zerga-oinarria	Kuota
	200	201
Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu ahal zaien edo araubide horren eraginpean dauden ondasunen eta zerbitzuen eskuraketaren zenbatekoak	Zerga-oinarria	Jasandako kuota
	202	203

Informazio gehigarria	Zerga oinarria		Tipo	Jasandako kuota		Kuota kengarria	
	Ondasun arrunten erosketak	50		%4	51		52
112			%5	113		114	
53			%10	54		55	
56			%21	57		58	
59				60		61	
62				63		64	
Guztira (50) + (112) + (53) + (56) + (59) + (62)				Guztira (51) + (113) + (54) + (57) + (60) + (63)		Guztira (52) + (114) + (55) + (58) + (61) + (64)	
65			66		67		
Gastuak	68		%4	69		70	
	115		%5	116		117	
	71		%10	72		73	
	74		%21	75		76	
	77			78		79	
Guztira ((68) + (115) + (71) + (74) + (77))			Guztira ((69) + (116) + (72) + (75) + (78))		Guztira ((70) + (117) + (73) + (76) + (79))		
80			81		82		
Inbertsio-ondasunak	83		%4	84		85	
	86		%10	87		88	
	89		%21	90		91	
	92			93		94	
	Guztira ((83) + (86) + (89) + (92))			Guztira ((84) + (87) + (90) + (93))		Guztira ((85) + (88) + (91) + (94))	
95			96		97		
Zerga oinarria guztira ((65) + (80) + (95))			Jasandako kuota guztira ((66) + (81) + (96))		Kuota kengarria guztira ((67) + (82) + (97))		
98			99		100		
Laina	Laina aplikatu bada, X jarri beharko da ondoko laukiren batean: Aplikaturako lainaren ehunekoak.....		Lain orokorra	101		Lain berezia	102
				103			

Eragiketa espezifikoak	Esportazioak eta beste eragiketa batzuk, kenkarirako eskubidea ematen dutenak.....	104
	Batasunaren barruko ondasun- eta zerbitzu-emateak.....	105
	Kokapen-erregelen menpe ez dauden eragiketak (108 laukikoak izan ezik).....	106
	Subjektu pasiboaren inbertsioa duten eragiketa lotuak.....	107
	Kokapen-erregelen menpe ez dauden eragiketak, leihatila bakarraren araubide bereziei heldu dietenak.....	108
Leihatila bakarraren araubide berezien mende dauden eta haiei heldu dieten eragiketak.....	109	